

IRAKASKUNTZA PLANA 2021/2022 IKASTURTEA

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena.....	2
2. Gure plangintzarako UPV/EHUren oinarrizko printzipioak.....	2
Babeserako osasun neurriak	2
Irakaskuntza jardueraren eredua eta plangintza.....	2
3. Psikologia Fakultateko irakaskuntza antolatzea	3
3.1. Irakaskuntza presentziala edo bimodala ikasturte eta titulazio bakoitzean ..	3
3.1.1. Psikologiako graduaren lehenengo maila	3
3.1.2. Psikologiako graduaren bigarren maila	3
3.1.3. Psikologiako graduaren hirugarren maila.....	4
3.1.4. Psikologiako graduaren laugarren maila.....	5
3.1.5. Graduondokoak	7
3.2. Bi saioko blokeak, atsedenaldiekin.....	7
3.3. Ordenagailu eta laborategiko praktikak.....	7
3.4. Ordutegiak, "psikoplana", kontziliazio premiak eta eragin posiblea irakaskuntza esleipenean.....	8

1. Aurkezpena

COVID-19aren pandemiak sortu duen osasun egoeraren eta erakundeek ezarri duten lan esparruaren ondorioz (Psikologia Fakultateak aintzat hartu beharreko jarraibideak), berrantolatzen jarraitu behar dugu irakaskuntza-ikaskuntza lana gure ikastegian, oro har, eta haren titulazio bakoitzean, bereziki.

Dokumentu honek laburbiltzen du dekanok taldeak egin duen proposamena gure irakaskuntza lana antolatzeko 2021/2022 ikasturtean, dokumentu hauetan oinarrituta:

- "Irakaskuntza eta ikaskuntza planifikatzeko orientabideak. 2021/2022 ikasturtea", UPV/EHUrena.
- Espainiako Unibertsitateetako Psikologiako Dekanoen Konferentziaren Posizionamendua erdi-presentzialtasunaren agertokian.

2. Gure plangintzarako UPV/EHUren oinarrizko printzipioak

Hemen laburbiltzen diren printzipioak atera dira nagusiki UPV/EHUren "Irakaskuntza eta ikaskuntza planifikatzeko orientabideak. 2021/2022 ikasturtea" dokumentutik.

Babeserako osasun neurriak

- Nahitaezkoa da unibertsitate barrutian CEk homologatutako eta baimendutako maskarak behar bezala erabiltzea (sudurra eta ahoa estalita):
 - UNE 0064 eta UNE 0065 ziurtagiriak dituzten maskara higienikoak, ENACek emanak.
 - UNE-EN 14683 ziurtagiria duten maskara higienikoak.
 - FFP2 maskarak.
- Oro har, gutxienez 1,5 metroko distantzia gordeko da pertsonen artean ikastegiaren instalazio guztietan.
- Ikasgelak behar bezala aireberrituko dira irakaskuntza-ikaskuntza jardueretan.
- Klaseak 50 minutukoak izango dira, 10 minutuko atsedenearekin; atsedenean, ikasleak ikasgelatik aterako dira, gela hobeto aireberritzeko (ikus 3.2 puntua).
- Ikastegi barruan, mugak jarriko zaizkie ikasleek joan-etorriei, eta saiaturako da talde bakoitzak beti gela bera erabil dezan eta ikasle bakoitza beti leku berean eser dadin.
- Klase telepresentziala duten ikasleak ez dira fakultatera joango.

Irakaskuntza jardueraren eredua eta plangintza

- Master titulazioetan, ez dira soil-soilik modalitate telepresentzialean emango 2 irakasgai baino gehiago talde eta lauhileko bakoitzeko, ezta 15 kreditu baino gehiago ere. Ezin izango da inola ere eman ikasturte oso bat modalitate ez-presentzialean.
- Gutxienez % 75eko irakaskuntza presentziala bermatuko da titulazio guztietan.
- Irakaskuntza eredu bimodala: irakaslea eta taldeko ikasleek erdiak ikasgelan (modu presentzialean), eta beste ikasleak bide telematikoz. Taldeen txandak antolatuko dira modu ekitatibo batean (astero aldatuz, adibidez).
- Presentzialtasuna lehenetsiko da modalitate praktikoetan eta hasierako mailetan, eta pisu txikiagoa izango du azalpeneko klase magistraletan eta azken mailetan.

- Irakaskuntza txandaka antolatuko da: goizez eta arratsalde. Modalitate teorikoak (telepresentzialak) asteko egun batzuetan emango dira; praktikokoak (presentzialak), beste batzuetan.
- Ahaleginduko da ikasturte bakoitzeko jarduera presentziala egun berberetan egin dadin (goizez edo arratsalde), ikasleek irakaskuntza telepresentziala (ikastegitik kanpo) eta presentziala txandakatu behar ez izateko.
- Beste itxialdi bat ezarriko balitz, irakaskuntza telepresentzialari berrekingo litzaioke.
- Normaltasuna berreskuratzeko balitz, irakaskuntza % 100 presentziala izango litzateke, 2021/2022 ikasturtearen plangintza berarekin.

3. Psikologia Fakultateko irakaskuntza antolatzea

Psikologia Fakultateak, bere ikasgelak ez ezik, I.M. Barriola eraikineko gela batzuk ere erabiltzen ditu (Ikasgelategia), Gipuzkoako campuseko beste titulazio batzuekin batera erabiltzen dugun eraikina. Eremu komunetan jendea pilatu ez dadin, ahalik eta etekinik handiena aterako diogu ordutegiari, eskura dauden gela eta instalazioen erabilera optimizatuta. Plangintza honi esker, saihestu egingo dugu, neurri handi batean, ikasleek kointziditzea eraikin (Fakultatea eta Ikasgelategia) eta txanda bakoitzean (goizez/arratsalde).

3.1. Irakaskuntza **presentziala edo bimodala** ikasturte eta titulazio bakoitzean

Presentzialtasun maila aldatu egingo da ikasturteen, irakasgai moten eta irakaskuntza modalitateen arabera.

3.1.1. Psikologiako graduaren lehenengo maila

- Lehenengo mailako irakasgai guztiak enborrekoak dira, eta **goizez** emango dira (09:00-14:00), **Barriola Ikasgelategian**.
- Irakaskuntza **presentziala** izango da, Ikasgelategiko gela handiagoak direlako. Ikasgela guztiak prest daude irakaskuntza bimodalerako, eta modalitate hori erabil daiteke osasun arrazoiengatik gorabeherak izan ditzakeen ikaslerik badago.
- Taldeen tamaina (01, 02, 31, 32 eta 61) egokitu egingo da ikasgelen "COVID edukierara", lehen matrikulako ikasle guztien presentzialtasuna bermatzeko saio guztietan.

3.1.2. Psikologiako graduaren bigarren maila

- Bigarren mailako irakasgai guztiak enborrekoak dira, eta **goizez** emango dira (09:00-14:00), **Psikologia Fakultatean**, nahiz eta, salbuespen gisa, klase praktikoren bat arratsalde programatik litekeen.
- **Talde handienetan** (01 eta 31), saio **magistralak bimodak** izango dira: hau da, astebetez ikasleak fisikoki ikasgelan egongo dira, eta hurrengo astean baliabide telematikoa erabiliko dituzte (etxetik). Saioak astean hiru egunez programatu dira. Adibidez:
 - 01 edo 31 taldeko eta 1 azpitaldeko ikasle batek, lehenengo astean, ikasgelan bertan jasoko ditu klase magistralak, hiru egunez; hurrengo astean, etxetik, egun berberetan.

- 2 azpitaldeko ikasle batek, aldiz, lehenengo astean, etxetik jarraituko ditu klase magistralak, eta hurrengo astean presentzialki (eta, horrela, hurrenez hurren).
- Plangintza honek arrakasta izan dezan, funtsezkoa da ikasleek beren azpitaldearen ordutegia eta plana betetzea. Beraz, beren azpitaldean egon behar dute beti.
- **Talde txikienetan** (02, 32 eta 61), saio **magistralak presentzialak** izango dira.
- **2. mailako ikasle guztiek presentzialki jasoko dituzte klase praktikoak.**

3.1.3. Psikologiako graduaren hirugarren maila

Lehenengo lauhilekoko 3 enborreko irakasgaiei dagokienez:

- Talde guztietan, klase **magistralak goizez** emango dira (09:00-14:00), hiru egunetan, Barriola eraikinean.
- Lehenengo lauhilekoan, **talde handienetan** (01 eta 31), saio **magistralak bimodalak** izango dira: astebetez ikasleak fisikoki ikasgelan egongo dira, eta hurrengo astean baliabide telematikoa erabiliko dituzte (etxetik). Saioak astean hiru egunez programatuko dira. Klase **praktikoak presentzialak** izango dira beti, eta azpitalde bati arratsalde egokituko zaizkio. Adibidez:
 - 01 edo 31 taldeko eta 1 azpitaldeko ikasle batek, lehenengo astean, ikasgelan bertan jasoko ditu klase magistralak eta dagozkion jardura praktikoak, goizez.
 - Aldiz, lehenengo aste horretan, 01 edo 31 taldeko eta 2 azpitaldeko ikasle batek etxetik jasoko ditu klase magistralak, eta arratsalde ikasgelategira joango da, jardura praktikoak egitera.
 - Hurrengo astean, alderantzizkoa: 2 azpitaldeak ikasgelan bertan jasoko ditu saio magistralak eta praktikoak, goizez; 1 azpitaldeak, aldiz, saio magistralak bideokonferentziaz goizez, eta praktikoak presentzialki arratsalde.
 - Plangintza hori egitean, nahikoa denbora utzi da ikasleek goizez klase magistral bat bideokonferentziaz jaso dezaten eta arratsalde saio praktiko batean presentzialki egon daitezen.
- Lehenengo lauhilekoan, **talde handienetan** (02, 32 eta 61), saio **magistralak eta praktikoak presentzialak** izango dira, eta ez da jarduerarik egongo arratsalde.

Hirugarren mailarekin bateragarriak diren hautazkoak:

- Lehenengo lauhilekoan, ikasle bakoitzak, enborrekoez gainera, ordutegi bateragarria eta 6 kreditu dituzten bi hautazko egingo ditu. Irakasgai horiek (6, guztira) **guztiz bimodalak** izango dira, eta enborrekorik ez dagoen bi goizetan emango dira, Ikasgelategian edo Psikologia Fakultatean.
- Irakasgai bakoitza astean egun bakarrez emango da, goizez beti, taldeari dagokion ikasgelan.
- Ikasle kopuruaren arabera eta, beraz, kontuan izanik praktiketako bi azpitalde dauden ala ez, irakasgai bakoitzak izango ditu 2 orduko bi edo hiru bloke, beren atsedenaldiekin (ikus 3.2 puntua), aukera emateko ikasleei eta irakasleei ikasgela aireberritzeko (modalitate presentziala) eta pantaila aurrean denbora gehiegi ez emateko (modalitate telematikoa).

- Horrela, bi azpitalde dituzten taldeetan (adibidez, 01 edo 31 taldea, 1 azpitaldea eta 2 azpitaldea dituen), astero txandakatuko dira modalitate presentziala eta bideokonferentzia bidezko saioa. Adibidez:
 - 01 edo 31 taldeko eta 1 azpitaldeko ikasle batek, lehenengo astean, ikasgelan bertan jasoko ditu klase magistralak eta praktikoak; hurrengo astean, etxetik.
 - 2 azpitaldeko ikasle batek, aldiz, lehenengo astean, etxetik jarraituko ditu klase magistralak eta praktikoak; hurrengo astean, presentzialki (eta, horrela, hurrenez hurren).
 - Plangintza honek arrakasta izan dezan, funtsezkoa da ikasleek beren azpitaldearen ordutegia eta plana betetzea. Beraz, beren azpitaldean egon behar dute beti.
- Beti modalitate bimodalean ematen diren irakasgai hauetan, irakasleak eskatuz gero, errefortzu ordu batzuk planifika daitezke modalitate presentzialean, tamaina egokiko ikasgela batean eta hitzordua eskatuta beti.

Bigarren lauhilekoko 5 enborrekoei dagokienez:

- Irakasgai guztiak **goizez** emango dira (09:00-14:00), Ikasgelategian edo Psikologia Fakultatean, nahiz eta, salbuespen gisa, klase praktikoren bat arratsaldean programa litekeen.
- Bigarren lauhilekoan, **talde handienetan** (01 eta 31), saio **magistralak bimodalak** izango dira: astebetez, ikasleak fisikoki ikasgelan egongo dira, eta hurrengo astean baliabide telematikoa erabiliko dituzte (etxetik). Saioak astean hiru egunez programatu dira. Adibidez:
 - 01 edo 31 taldeko eta 1 azpitaldeko ikasle batek, lehenengo astean, klase magistralak ikasgelan bertan jasoko ditu, hiru egunez; hurrengo astean, etxetik, egun berberetan.
 - 2 azpitaldeko ikasle batek, aldiz, lehenengo astean, klase magistralak etxetik jarraituko ditu, eta hurrengo astean presentzialki (eta, horrela, hurrenez hurren).
 - Plangintza honek arrakasta izan dezan, funtsezkoa da ikasleek beren azpitaldearen ordutegia eta plana betetzea. Beraz, beren azpitaldean egon behar dute beti.
- **Talde txikienean** (02), saio **magistralak presentzialak** izango dira.
- **Ikasle guztiek presentzialki jasoko dituzte klase praktikoak.**

3.1.4. Psikologiako graduaren laugarren maila

Lehenengo lauhilekoan, **6 kredituko hautazkoei** dagokienez ("minor" bakoitzeko bi + Euskararen Plan Gidariaren bi irakasgaiak):

- Eredu **guztiz bimodalean** emango dira Ikasgelategian edo Psikologia Fakultatean, salbuespen batekin. Ordutegiak egitean, 21/22 ikasturteko egutegi akademikoaren arabera, ikusi zen ezin zela erabat bermatu irakasgai horiei esleitutako ordu edo kreditu kopurua ematea. Horregatik, irakasgai horien irakaskuntza **irailaren 8, 9 eta 10era aurreratzea erabaki da, eta hauek egun hauetan telepresentzialki emango dira**. Erabaki hori "minor"en koordinatzaileekin, irakasgai hauen koordinatzaileekin eta ikasleen kontseiluarekin adostuta hartu da.

- Irakasgai bakoitza astean egun bakarrez emango da, **goizez** beti, taldeari dagokion ikasgelan.
- Matrikulatutako ikasle kopuruaren arabera eta, beraz, kontuan izanik praktiketako bi azpitalde dauden ala ez, irakasgai bakoitzak izango ditu 2 orduko bi edo hiru bloke, beren atsedenaldiekin (ikus 3.2 puntua), aukera emateko ikasleei eta irakasleei ikasgela aireberritzeko (modalitate presentziala) eta pantaila aurrean denbora gehiegi ez emateko (modalitate telematikoa).
- Horrela, bi azpitalde dituzten taldeetan (01 edo 31 taldea, 1 azpitaldea eta 2 azpitaldea dituen), astero txandakatuko dira modalitate presentziala eta bideokonferentzia bidezko saioa. Adibidez:
 - 01 edo 31 taldeko eta 1 azpitaldeko ikasle batek, lehenengo astean, ikasgelan bertan jasoko ditu klase magistralak eta praktikoak; hurrengo astean, etxetik.
 - 2 azpitaldeko ikasle batek, aldiz, lehenengo astean, etxetik jarraituko ditu klase magistralak eta praktikoak; hurrengo astean, presentzialki (eta, horrela, hurrenez hurren).
 - Plangintza honek arrakasta izan dezan, funtsezkoa da ikasleek beren azpitaldearen ordutegia eta plana betetzea. Beraz, beren azpitaldean egon behar dute beti.
- Beti eredu bimodalean ematen diren irakasgai hauetan, irakasleak eskatuz gero, errefortzu ordu batzuk planifika daitezke modalitate presentzialean, tamaina egokiko ikasgela batean eta hitzordua eskatuta beti.

Lehenengo lauhilekoan, **4,5 kredituko** hautazkoei dagokienez:

- Oro har, **bimodalak** izango dira eta **arratsaldez** emango dira (15:00etan hasiko dira gehienak; kasu batzuetan, 16:00etan).
- Irakasgai bakoitza astean egun bakarrez emango da (astelehenetik ostegunera), taldeari dagokion ikasgelan.
- Matrikula kopuruagatik praktiketako bi azpitalde dituzten irakasgaietan, praktiketako azpitalde bat goizez arituko da modu telepresentzialean. Adibidez:
 - 1 azpitaldeko ikasle batek, lehenengo astean, presentzialki jasoko ditu klase magistralak eta dagozkion jarduera praktikoak, arratsaldez.
 - Aste berean, 2 azpitaldeko ikasle batek goizez egingo du praktika, modalitate telepresentzialean, eta arratsaldean etxetik jasoko ditu klase magistralak, fakultatera joan beharrik gabe.
 - Hurrengo astean, alderantzizkoa: 2 azpitaldeak ikasgelan bertan jasoko ditu saio magistralak eta praktikoak, arratsaldez; 1 azpitaldeak, aldiz, saio praktiko telepresentzialak goizez, eta magistralak bideokonferentziaz arratsaldez, fakultatera joan beharrik gabe.
 - Asteko txandakatze hori lauhilekoa amaitu arte luzatuko da.
- Azpitalderik gabeko irakasgaietan, irakaskuntza jarduera guztia (magistrala eta gainerako modalitateak) arratsaldez egingo da beti, egun bakar batean.
- Matrikulatutako ikasle kopuruaren arabera, modu guztiz presentzialean eman ahal izango dira irakasgai batzuk (ikus 1. eranskina).

Bigarren lauhilekoan:

- Practicumera sartzeko irakasgaiak urtaril-otsailetan emango dira, hiru astez, modu **presentzialean**, fakultatean eta arratsaldez.
- Kanpoko praktikak egingo dira fakultatetik kanpoko praktika zentroetan, praktikak fakultate ikerketa taldeetan egingo dituzten ikasleak salbu.
- Gradu Amaierako Lana ohiko moduan egingo da, eta defentsa presentziala izango da.

3.1.5. Graduondokoak

Graduondoko tituluetan (master ofizialak eta berezko tituluak), ikasle kopuru txikiagoak aukera ematen du irakaskuntza guztiz **presentziala** izan dadin. **Fakultatearen** ikasgeletan ematen diren **graduondokoei** dagokienez, ordutegi txanda hauek proposatzen dira:

- a. Osasun Psikologia masterra: goizez (09:00-14:00).
- b. Psikologia: Gizabanakoa, Taldea, Erakundea eta Kultura masterra: arratsaldez (15:00-20:00).
- c. Erakundeen Psikologia eta Esku Hartze Psikosoziola masterra: arratsaldez.

3.2. Bi saioko blokeak, atsedenaldiekin.

Irakasgaiak 2 orduko blokeetan programatuko badira ere, 10 minutuko atsedenaldiak egingo dira 50 minuturo, ikasgelak aireberritzeko eta ikasleak ikasgelatik irteteko.

3.3. Ordenagailu eta laborategiko praktikak

Ordenagailu praktiken kasu berezian, uste dugu oraindik ez dagoela modurik fakultateko ekipoak modu egokian erabiltzeko, kontuan izanik ordenagailu gelak txikiak direla eta ekipoak eta aulkiak gomendatutakoa baino distantzia txikiagora daudela.

Hortaz, proposamena hau da: OP saio bat egin behar denean, ikasleek praktiken gelan jarraitzea eta beren ordenagailu eramangarria edo tableta erabiltzea. Praktika hauetan ohikoa denez taldean aritzea, nahikoa litzateke gutxienez taldeko pertsona batek ekipo pertsonal bat edukitzea. Kasu hauetan, 1 m-ko distantzia gordeko da eta maskara erabiliko da beti. Irakasleak maskara jantziko du taldeengana hurbiltzeko eta haien kontsultei erantzuteko.

Software pribatiboa erabiltzeko beharrari dagokionez (ikasleen eskura ez dagoen softwarea), kontuan izan da:

- Irakasgai askotan sustatzen ari gara jada software librea erabiltzea, ikasleek inolako mugarik gabe instala dezaketena beren ekipo pertsonalean.
- Lizentziapeko softwarea erabiltzen duten irakasgaietan, aurreko ikasturtean bezala (2020-2021), IKTen Gerenteordetzak emandako EDONON zerbitzua erabiliko da.

Ekipo pertsonal bat eskuratzeko zailtasunak dituzten ikasleei dagokienez, kontuan izan da:

- Orientabideen dokumentuan, UPV/EHUk planteatu du "ordenagailuak mailegatzeko eta internet konexioan laguntzeko zerbitzu bat antolatzea, zailtasun ekonomikoak dituzten ikasleentzat". Beraz, egoera horretan dauden ikasleek harremanetan jarri beharko dute Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetzarekin.

Laborategiko praktiken kasuan, *ad hoc* plangintza bat egingo da saio horientzat, elkarlanean inplikaturako irakasle taldeekin.

3.4. Ordutegiak, "psikoplana", kontziliazio premiak eta eragin posiblea irakaskuntza esleipenean

2021/2022 ikasturtea antolatzean, unibertsitatearen orientabideei jarraiki, kontuan izan da, ahal den neurrian, irakasgai bakoitzaren "psikoplana", eta errespetatu egin dira, neurri handi batean, astean planifikaturako saio magistralen eta saio praktikoen kopuruak.

Era berean, ahal den neurrian, aintzat hartu dira ere irakasleen kontziliazio beharrak.

Azkenik, eta posible izan den neurrian ere, kontuan izan da jadanik eginda zegoen irakaskuntza esleipena, eta saiatu gara irakasleen gainezarpenak saihesten (baita beste ikastegi batzuetako beste gradu tituluekin ere, posible izan denean).

Halaber, doitu egin dira graduondoko tituluen ordutegiak, aintzat harturik graduoko ordutegiak.

UPV/EHUren “Irakaskuntza eta ikaskuntza planifikatzeko orientabideak” dokumentuaren 1. ERANSKINA

IRAKASKUNTZARI EGOKITZEKO PLANA

IKASTEGIA: PSIKOLOGIA FAKULTATEA

Fecha de aprobación en Junta de Centro: 20 de julio de 2021

COD_PLAN	PLAN	Porcentaje créditos presenciales	Porcentaje créditos telepresenciales
GPSICO20	GRADO EN PSICOLOGÍA	82,24	17,76
PGSAN801	MÁSTER PSICOLOGÍA GENERAL SANITARIA	100	0
PSILO903	MÁSTER PIGOC	100	0
PSOIP501	MÁSTER POIP	100	0
NECOL601	MASTER CNL	100	0

**Para calcular los porcentajes se deberá tener en cuenta la totalidad de asignaturas ofertadas en cada titulación.

***En todas las titulaciones, y siempre que las autoridades sanitarias lo permitan, se debe garantizar un mínimo de docencia presencial del 75%.

GPSICO20 - GRADO EN PSICOLOGÍA – Presencialidad por estudiante

Cod_plan	Plan	Curso	Cuatrim.	Cod_asignatura	Asignatura	Créditos	Créditos presenciales	Créditos telepres.	Porcentaje presencialidad
GPSICO20	Grado en Psicología	1	1	25100	Historia de la Psicología	6	6	0	100
GPSICO20	Grado en Psicología	1	1	25073	Evolución y conducta	6	6	0	100
GPSICO20	Grado en Psicología	1	1	25081	Fundamentos de Neurociencia Conductual	6	6	0	100
GPSICO20	Grado en Psicología	1	1	25102	Metodología en Psicología	6	6	0	100
GPSICO20	Grado en Psicología	1	1	25041	Psicología Social	6	6	0	100
GPSICO20	Grado en Psicología	1	2	25052	Aprendizaje, Conducta y Cognición	6	6	0	100
GPSICO20	Grado en Psicología	1	2	25048	Atención, Percepción y Motivación	6	6	0	100
GPSICO20	Grado en Psicología	1	2	25062	Psicología Dinámica	6	6	0	100
GPSICO20	Grado en Psicología	1	2	25070	Psicología de la Personalidad	6	6	0	100
GPSICO20	Grado en Psicología	1	2	25074	Psicología del Desarrollo I	6	6	0	100
GPSICO20	Grado en Psicología	Primer curso			10 asignaturas obligatorias Todas las modalidades presenciales	60	60	0	100

Cod_plan	Plan	Curso	Cuatrim.	Cod_asignatura	Asignatura	Créditos	Créditos presenciales	Créditos telepres.	Porcentaje presencialidad
GPSICO20	Grado en Psicología	2	1	25050	Análisis de Datos y Diseños: Método no Experimental	6	4,4	1,6	73,33
GPSICO20	Grado en Psicología	2	1	25055	Emoción y Competencias Socioemocionales	6	4,75	1,25	79,17
GPSICO20	Grado en Psicología	2	1	25057	Memoria y Toma de Decisiones	6	4,4	1,6	73,33
GPSICO20	Grado en Psicología	2	1	25063	Psicología Fisiológica	6	4,4	1,6	73,33
GPSICO20	Grado en Psicología	2	1	25078	Psicología del Desarrollo II	6	4,35	1,65	72,50
GPSICO20	Grado en Psicología	2	2	25060	Pensamiento y Lenguaje	6	4,3	1,7	71,67
GPSICO20	Grado en Psicología	2	2	25068	Psicología de la Educación	6	4,4	1,6	73,33
GPSICO20	Grado en Psicología	2	2	25071	Psicología de los Grupos	6	4,5	1,5	75,00
GPSICO20	Grado en Psicología	2	2	25076	Psicometría	6	4,4	1,6	73,33
GPSICO20	Grado en Psicología	2	2	25080	Psicopatología	6	4,4	1,6	73,33
GPSICO20	Grado en Psicología	Segundo curso			10 asignaturas obligatorias Magistrales bimodales, resto modalidades presenciales	60	44,3	15,7	73,83

Cod_plan	Plan	Curso	Cuatrim.	Cod_asignatura	Asignatura	Créditos	Créditos presenciales	Créditos telepres.	Porcentaje presencialidad
GPSICO20	Grado en Psicología	3	1	25088	Diseños y Análisis de Datos: Método Experimental	6	4,4	1,6	73,33
GPSICO20	Grado en Psicología	3	1	25089	Evaluación y Diagnóstico Psicológicos	6	4,4	1,6	73,33
GPSICO20	Grado en Psicología	3	1	25095	Prevención e Intervención en Contextos Educativos	6	4,4	1,6	73,33
GPSICO20	Grado en Psicología	3	1	A escoger	2 optativas compatibles de 6 créditos	12	6	6	50,00
GPSICO20	Grado en Psicología	3	2	25086	Análisis y Resolución de conflictos y estrategias de cooperación	6	4,4	1,6	73,33
GPSICO20	Grado en Psicología	3	2	25092	Fundamentos de Neuropsicología y Psicofarmacología	6	4,25	1,75	70,83
GPSICO20	Grado en Psicología	3	2	25096	Psicología de la Salud	6	4,5	1,5	75,00
GPSICO20	Grado en Psicología	3	2	25097	Psicología de las Organizaciones y del Trabajo	6	4,4	1,6	73,33
GPSICO20	Grado en Psicología	3	2	25098	Tratamientos Psicológicos	6	4,2	1,8	70,00
GPSICO20	Grado en Psicología	Tercer curso			8 asignaturas obligatorias con magistales bimodales, resto modalidades presenciales 2 optativas totalmente bimodales	60	40,95	19,05	68,25

Cod_plan	Plan	Curso	Cuatrim.	Cod_asignatura	Asignatura	Créditos	Créditos presenciales	Créditos telepres.	Porcentaje presencialidad
GPSICO20	Grado en Psicología	4 (optativa)	1	A escoger	36 créditos de asignaturas optativas	36	28,1	7,9	78,13
GPSICO20	Grado en Psicología	4 (optativa)	2	A escoger	Una de las asignaturas de introducción al practicum	6	6	0	100,00
GPSICO20	Grado en Psicología	4	2	25105	Prácticas Externas	12	12	0	100,00
GPSICO20	Grado en Psicología	4	2	25104	TFG	6	6	0	100,00
GPSICO20	Grado en Psicología	Cuarto curso			6-7 asignaturas optativas combinadas libremente + una de las introducciones al practicum + Prácticas externas + TFG	60	52,13	7,88	86,88
GPSICO20	Grado en Psicología	TOTAL GRADO				240	197,38	42,63	82,24

GPSICO20 - GRADO EN PSICOLOGÍA – Detalles optatividad

Optativas de tercer curso; se cursan DOS en el primer cuatrimestre a escoger						Créditos	Créditos presenciales	Créditos telepres.	Porcentaje presencialidad
GPSICO20	Grado en Psicología	4 (optativa)	1	25090	Cambio, Desarrollo y Transformación Organizaciones: Calidad e Innovación	6	3	3	50
GPSICO20	Grado en Psicología	4(optativa)	1	25059	Técnicas y Herramientas de Mejora en Equipos y Organizaciones	6	3	3	50
GPSICO20	Grado en Psicología	4 (optativa)	1	25072	Psicogerontología	6	3	3	50
GPSICO20	Grado en Psicología	4 (optativa)	1	25054	Psicología de la Sexualidad	6	3	3	50
GPSICO20	Grado en Psicología	4 (optativa)	1	25077	Programación Psicosocial: Servicios Sociales y Comunidad	6	3	3	50
GPSICO20	Grado en Psicología	4 (optativa)	1	25079	Multiculturalidad y Multilingüidad en Sociedades Complejas	6	3	63	50
Se escogen DOS en primer cuatrimestre del tercer curso						12	6	6	50

Optativas de cuarto curso; se cursan 6-7 en primer cuatrimestre a escoger*						Créditos	Créditos presenciales	Créditos telepres.	Porcentaje presencialidad
GPSICO20	Grado en Psicología	4 (optativa)	1	25093	Asesoramiento Psicológico	6	3	3	50
GPSICO20	Grado en Psicología	4 (optativa)	1	25087	Clínica Infanto-Juvenil: Evaluación y Psicopatología	6	3	3	50
GPSICO20	Grado en Psicología	4 (optativa)	1	25084	Educación para la convivencia	4,5	4,5	0	100
GPSICO20	Grado en Psicología	4 (optativa)	1	25083	Evaluación de Puestos de Trabajo, Rendimiento y Mejora	4,5	4,5	0	100
GPSICO20	Grado en Psicologí	4 (optativa)	1	25085	Diseños aplicados a la evaluación de programas de intervención psicosocial	4,5	4,5	0	100
GPSICO20	Grado en Psicología	4 (optativa)	1	25082	Introducción a la Intervención Grupal Psicosocial	4,5	4,5	0	100
GPSICO20	Grado en Psicología	4 (optativa)	1	25075	Promoción del Desarrollo Psicológico	4,5	4,5	0	100
GPSICO20	Grado en Psicología	4 (optativa)	1	25069	Psicología Ambiental	4,5	4,5	0	100
GPSICO20	Grado en Psicología	4 (optativa)	1	25065	Psicología Jurídica	4,5	4,5	0	100
GPSICO20	Grado en Psicología	4 (optativa)	1	25061	Psicología Política y Movilización Social	4,5	4,5	0	100
GPSICO20	Grado en Psicología	4 (optativa)	1	25058	Psicología de la Familia	4,5	4,5	0	100
GPSICO20	Grado en Psicología	4 (optativa)	1	25056	Psicología de la Publicidad y del Marketing	4,5	4,5	0	100
GPSICO20	Grado en Psicología	4 (optativa)	1	25051	Psicología de los Recursos Humanos: Planificación, Selección y Promoción	4,5	4,5	0	100
GPSICO20	Grado en Psicología	4 (optativa)	1	25049	Psicología del Deporte	4,5	4,5	0	100
GPSICO20	Grado en Psicología	4 (optativa)	1	25103	Psicoterapia	4,5	2,25	2,25	50
GPSICO20	Grado en Psicología	4 (optativa)	1	25094	Salud y Trastornos de Dependencia	4,5	2,25	2,25	50
GPSICO20	Grado en Psicología	4 (optativa)	1	25101	Terapia Cognitivo-Conductual	4,5	2,25	2,25	50
GPSICO20	Grado en Psicología	4 (optativa)	1	25091	Tratamiento Infanto-Juvenil	4,5	2,25	2,25	50
GPSICO20	Grado en Psicología	4 (optativa)	1	25039	Norma y Uso de la Lengua Vasca	6	3	3	50
GPSICO20	Grado en Psicología	4 (optativa)	1	25053	Comunicación en Euskera: Psicología	6	3	3	50
* Las optativas de 6 créditos son totalmente bimodales, las de 4,5 créditos son todas presenciales a excepción de las asignaturas del "minor" de clínica debido a su mayor número de matriculación.					Se escogen 6-7 en primer cuatrimestre del cuarto curso	96,00	75	21	78,13

Cuarto curso; segundo cuatrimestre, se cursa UNA a escoger						Créditos	Créditos presenciales	Créditos telepres.	Porcentaje presencialidad
GPSICO20	Grado en Psicología	4	2	25099	Introducción al Practicum de Intervención Psicosocial	6	6	0	100
GPSICO20	Grado en Psicología	4	2	25064	Introducción al Practicum de Psicología Clínica y de la Salud	6	6	0	100
GPSICO20	Grado en Psicología	4	2	25066	Introducción al Practicum de Educación	6	6	0	100
GPSICO20	Grado en Psicología	4	2	25067	Introducción al Practicum de Psicología del Trabajo, de los Recursos Humanos y de las Organizaciones	6	6	0	100
Se escogen UNA en segundo cuatrimestre del cuarto curso						6	6	0	100